"bernard de echepare"

lenengo euskel-idazlea

1936

"Ezin eskriba zaiteian..."



11

"Berze jendek uste zuten
Ezin eskriba zaiteian
Orai dute porogatu
Enganatu zirela." ("Contrapas")

Ona emen gure Etxepare'tar Bernarda azkara; ora or bere lana. "Berze jendek uste zuten, ezin eskriba zaiteian..." Itzek! - esan bere kolkorako ta - laster ikusiko dozue euskeraz idatzi daiken ala ez -, dirautsoe euskeldun guztiei.

Ujoldeak aurean daruana pendizera edo ondamendira duana ezagutu eban gure Etxepare'k. Ezagutu bakarrik ez, ujoldeari albora alde be, bai. Ujoldeari alde eitionik ez eta ekien auxagu beste euskeldunak? Onez aldeten asi al ziran baiña?

Ujolderen edo uraren-erara juatea zer zan, Etxepare berberak dirausku bere "Linguae Vasconum Primitiae" Idaztiaren asieran.

....."baskoak baitira abil, animos eta gentil eta hetan izan baita eta baita ezienzia gucietan letratu handirik. miraz nago jauna nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propriaren favorean, euskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera ceren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezala..." Euskerak entzute gitxi iñorik ezer idatzi ez ebalako eukala dirausku ondoren, eta orez gainera... "berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daitela lengoaje hartan..."

Gaztelerak eta prantzetarrak eurak be, gai sakonak lateraz idatzi oi ebezan. Ostango gaiak oraitiño erderaz be egiten ebezan.

Euskeldunek, ostera, auturik azal eta lauenak be, erderaz azalten ebezan.

Euskera be, edozein landareako besteak baizen gai zala adieraztea izan zan Etxepare'ren burubide ta egingoa.

Oretarako bere euskerazko lenengo bere "Linguae Vasconum Primitiae" idatzi ostean... "orai dute porogatu
enganatu zirela" egiz esan eikean.

Besteen-erara joketzea - mundu onetan egia esan - urtepiderik

lauena da; aurika-bidea baiña beste bat yetxu, ene ikaturle; bestien-araua ibilteka, guztien-alderauntzira edo kontrara egin eta gero beste guztiok norbere ondoren ekartea. Bide aldatz eta zaila. Ori egiten daben gizonak bai txalogari ta goragariak!

Onein artekoa dogu Etxepare Jauna be. Euskotar aurizagaria; euskeraz idazten lenen asi zan euskelduna. Berrien ezaupide izan daizuzan izpar batzuk.

"Garazi'ko natura..."

Etxepare'ren jatoria ta abizenaren goibeiak alde batera lagako doguz, gauza garbirik iñork be ez daki-ta.

Saraskota Etxepare'ko semea dogu. Donibane Garazi onduan dagon Eihelare'koa. 1518'ko agiri batek darakuskunez bere jaioterriko Erretore zan orduan. 1533'garrean bizi zan ausago; urte onetako agiri batzuetan "Bertrandus de chaparre (sic) rector sancti Michaelis veteris" izenez izenpetuta doguz-eta. 1549 g'n. be, agiri da "maestre bernard de echapare" izenpedun idazti bat. Gure olerkaria ete zan? Beste agirietan letz bere izenaren ondoren "Rectorem Sancti Michaelis Veteris" ipiñiten ez dauenaren berbera izan daikela diño Urkizo Jaunak artizkariak "Introduccion al "Lingua Vasconum Primitiae" idazlanean.

Etxepare berberaren autoriez aldi baten Bearne'n morolopean edo kerizpean egon zana be, ba-dakigu oraiñino.

Zergaitik sartu ebenik?

"Heldu behar duien gauzan ezta eskaparerik
Nik ogenik ez nuiela ongi gitez berzerik
Bide gabek haritu nu bide ez nuien lekutik
Iregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik."

Orixe dirausku "Mossen Bernatt echaparere cantuia" olerkian. Berariago beste zeozertxu be, ba-diño. Guzurezko zalakuntzaren

bat egin ete eutsen?

"Falsu testimoniotik ezin ehor begira
Halaz kondenatu zuten Jainkoa ere hiltzera..."

Beste toki baten, be, "bide gabe handia" egin eutsela diñostu. Zein izan eikean baiña bidegabekeri ori?

Ziurik barik guratzaldu eben Jainko maitigarr buruz bat egiten dau bedorek. Berberoi juan ei-zan gainera arerioen mendera.

"Ni gaixoa! etsaiari ni haur giniz eskura;
Ene unsa eginak ere orai oro gaiz dira;
Haren menian ezpenengo nik nukeien zuzena
Miratuko ba'negi ere orai ene ogena..."

Ori ote Jaunaren estez olerki lizun eta nabarmenak-gaitik etzi-latu eban, edo bere bizimodu bihurt ta loiaren.

Uarte'tar Joseba M.ᵃ'k "Euskalerriaren-Alde" Aldizkingian dara-kusgunez ta Aitkol argiak Jakintza'n(4) diñonez politika-antu-ren bat izan eban. Andarez Nabarra eskuratu eban España'ko Errege aldeko genduan Etxepare. ta aren alde -edo zerbait egin ebalako Kerizperatu ete eban uste dabe oreik.

"Erregeri dakidala nik eztizit faltatu" diraustu gaiñera berberak len aitatutako olerkian. "Erregeri faltatu" baiña era bitara ulertu daitke. Orduko itz-arauz "erregeri faltatu", "faltar al Rey" eta "faltar a la Ley" (b)ezan, daikela diñostu Urkixo Jaunak.

Dana dala, gure Etxepare'k naiko eruapen izan eban Kerizpe aretan, bere olerkietan darakusgunez.

"Ongi egiter, gaiz sofriter behar dugu salbatu,
Pena 'ta miseria nik enuien dastatu,
Orai dakit Jangoikoa'k enu nai damnatu
Heben ene penazera zaidenian oskitu.
Ure hunak behar dizi suian purgatu."

Ora zeiñen ikasbide ederak damostuzan. Merezi ebalako sartu ba-eben, gaiztakeria alde batera laga ta berak damostun ikasbidea one-ritzi daigun.

"bafeoec... duten... bere longoazgien servitzez... solaz egiteko cantatzeko eta dembora iragaiteko materia...."

1545 'gn. argitaldu zan euskeraz lenengo egin zan idaztia. "Linguae Vasconum Primitiae per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti michaelis veteris" yatzu bere izenburua. "Erregearen abbokatu bidezko eta nobleari..... bere jaun eta jabe Bernard Lehete'ri bernard echeparekoak... gogo onez...." Ora eskeintza. Eskintza edo itzaurre ondoren amazortzi olerki dakarz. Lenengo bostak uzkutz edo erleginō gaieri buruz eginak; azkenengo biak euzkera goresteko ta gaiñerantzekoak "amorosen" eta "emazteen" autuak-bide.

"Zati ederrak ba-ditu — dinoskun Laffite Jaunak — baiña — egia egiari zor — apez batek segurki egin bear ez beselakoetarik ere pariasteda bat". (6) Maite-olerkiei buruz diño au ausago.

"Gai ederrak baiña goi-argia jantzia ez da gaia baizen eder, ezta goiargia be, gaiari yagokon beste; goi-argia motel ta jantziz, le ez yaku bear lakoan ~~..nda~~ gure Etxepare. Gogo-maitemindunaren ectiñak ostera dar-dar dagie olerki lauotan! Orixegaitik eder esteu doguz Etxepare'ren olerkiak". (7) Ora Altzol Jaunaren eritzia.

"Todos convienen en que Dechepare no fué gran poeta, aun cuando no falta belleza en algunos de sus versos. El interés que encierra el primer libro impreso en vascuence — dirauskun Urkixo'tar Julen Jaunak — es sobre todo linguistico y bibliográfico." (8)

Eta "amorosen" edo maite olerkiei buruz Urkixo berberak beste toki baten nabarmenegiak, lizunegitxoak dirala ta abade baten izenez olerki areik zelan argitaldu ziran ezin ereztu sinestu daikela diño; betez be, ekiz agirifededun abade baten izenez zelan argitaldu ziran jakitia zail be, zail dala.

Ora omen orain auzi bat. Maite-olerki areik abade baten izenean ezin argitaldu eikezala-ta Francisque Michel Jaunak olerki areik Etxepare beranak ~~ez zirala~~ izango ete diran ~~..~~ ezpaia sortu yakon; Etxepare'k bere olerkiekin batera aldi aretan aotan ebil zan beste olerki batzuk txortata ez ete euzan?

Ora auzipodea zabalik. Ora beste korapilo bat, eta iñork ez al-daike askatu korapilo ori?

Olerki oriek Etxepare berarenak izan daikezala diño Urkixo Jaunak; Etxepare bera bizi zanean argitaltzeko euki ta bera il-ostean argitaldu eikezala-ta. 1518'go Garazi'ko Eretore zan eta 1545'garren ez ete zan il?

Izpai, eztabaida ta auziok laga ta olerkioi eldu dagioguen.

Jantzia ta soiñez mamiñez ta azalez ornidunak dogu olerkiak be, ta lenen jantziz ta azalez [zelakoak diran] ikusi dagiguzan.

Edozeiñek ikusi daikenez erderazko itzak nun-nai doguz. Euskerazko itzaren ordez erderazkoak pará-pará darioz. Euskeraz argi ta garbi esan eikezanak erderaz diñoz. Ignorancia, obra, "punicione" "laudatu" t. a.

Zer dala ta edu orelako erdel-itz-jarioa? Askotan gaiñera euskerazkoak laga-ta. Erdel-itzen bila ibille ori orduko "moda" edo burukeriren bat izango dogu kontuzu, oreitariko erdel-itzak baiño euskerazkoak ulertariezagoak genduzan-eta. Jakitun-buru egiteaen be izan eikean. Joskera ez dauka oren biurá; "ceren" eta olakoren batzuk kendu ezkero, naiko jatorrá.

Itxez uri txamar, [apaindu] ornidu-ornidua be, ez da. Laua, argia ta ulertoreza, bai, ulerteriezik ba-da, erderazko itzok kendu-ezkero.

Irudimen motel-txamerá ene eburuz; noizipeingo irudiak oraitiño bizi-bizi ta egokiak yatzuz. ene oretuerk

("Amoros secretuqui dena") " Artizariak berzetarik abantalla derama
Hala berda anderetan ni penazen nuyena,
Ibanbat da eder eta gentil hezez orho nerema
Zori honian sortu date haren besoan dezena"

Tanta-tanta iturriori negara leta darioan antxirudiak zeiñen egokiak diran aspaldi orietan dakusunez

Izadi-irudi zale-zaleak izan dira gure bertsolariak. Etxepare ostera ez yaku izadi irudi-zale. Izadi-irudi bila buruhausteri ibille ori erukeri ete ete eban? Bertsoak asal, gogapena yaku olerti-un. Gogapenoi baiña antxirudiak damotse bizia.

Izardi-irudietan urria ta ostinguetan be, ok yaku ugari-ugaria.

Aztertz-gaietan adimena dogu irudimeni eta ~~bertsoaren~~ buru. "Sermolari"ak dakusgu ta oni-ondoe.

"Elas! otoi, orok egin orai penitenzia
("Doctrina Christiana") Behar orduian estukegu gero agian aizina
Anhiz jende enganatu doa luzamenduiaz
Seguraturik ehork eztu egun baten bizia"

Ona esakera labur, naiugori ta legorak alkarren gainean. Ola ko asko dau lenengo sailean. Diozkada batzukin beratuko ba'leuz, ta irudiz geitxo-ago jantzi gogapen legor janduok!

Itengabeko itz-jariotik bein be ez dauko; zeaztapen labur ta biziak bai, adibidez "Judizio Jeneralean",

Juje Jauna eraturik egonen da gainetik;
Krestera aphaindurik infernuia azpitik;
Itsai gaiza akusatzen eskerreko aldetik;
Bekhatuiak eskuinetik minizaturen publiki;
"Ibire kontra heban gituk, ihaurorek eginik!"
Gaizkienik kontra date konzienza barnetik.

Irunago luze ta baritsuen "Judizio Jeneralean"* deritzaion olerki onetantxe yaku izan.

Xenpelar'en "Juizio generala" ta Etxepare'rena alkarren ondoan jarri ba-daitekezuz, alkarrekin antz aundia daben gauzak dakuskezuz, baterebe olerki ~~...~~ ta egin-eran.

"Doctrina Christiana" ikasbide ta irakatsi onak damozkuz. "Amar Mandamentuiak" "amar" eginduak zeuritzuk diran diño.

"Orazionia" izenpurur ~~...~~ "grazia ororen ama eta iturburuia..." egundano bekatuten makulbetu gabia" danari degitso ta "vertutetan regitzeko egidazu grazia..." "bekatuiak berhaturik didan perebizua" dirautso.

Orra urkure-gaieri buruz egindakoen buru "Amorosen gaztiguia" Ama Birjiña'ri egina au be. Graspen aundia eutson ausego Maren gaibia'ri.

Ni haurk ere ukhen dizit—diraustu—zenbait ere amore,

7/

«(Amoren gastigueya)» «Dana hantik eztut uken probetxurik bat ere.
Anhitz dena arimá gal hanera eta neuri ere
Amoretan plazer baten mila dira dolore.»

Ostingo maite gustiak itzita, Miren'en seme gadizala ta
«Andra huna, ar dezagun orok ohore,
Berze oro uzi eta egin heri ohore» diño.
«Hela egin ba-dezagu ohoratu girate
Berze gaitik hura gabe oro galdu girade»

Olerki garbi ta samur oreen ondoren "amorosen" kontu ta artuemonekin yatorku. Aldiren baten berberak izan euzan artuemonak-gomuteak biotzean sortzen dautsozan eotin eta intziriak kontizu. «Ni hauir ere ebili niz anhizetan erhorik

«(Amorosen gastigueya)» Gaoz eta egunaz ere hozik eta berorik,
lor galdu, pena aski baiña ez arimagatik
Orai oro nahi nuke liren Jainkoagatik» — ber-

berak diñosku. Guztiz biozkoi yaku olerki oneitan.

Oinidoño be, kontizu gaztaroan txinpart-utsa eriuen irits-tzingara bizirik dauka biotz-barenean. Lenagokuen gomuteak joten dauzanean tzingaroi, garétan jarten yako ta garoi olerkietan dario. Garoi ikaldu edo [illegible] ziteen zilegi-esirik alperikoak dira.

(«Amorosen disputa») «Orano amore ceste gituzu
Jainkuaz orhizako lekku diguzu» diraŭtso bere

bariunbeari zirikalariari. Ariots likitsari ostera,

(«Amorosen disputa») «Joan daraudazu lehen bihotza,
Gero gathibatu neure gorputza.»

Lizunkeri-luzunak egiten dauskuz izugarri, bestela jantzir guztiz jator diran maite-olerkiok. Biozkoi ta samurak dozuz izan. Amundik-istora be, ezin ukatu daike abade bateri ez yagokozanak diranik.

Beste olerkietan aren "sermolari" egoki ta argi dakusazuna, "amorosen" kantuotan argiari igesi dakusgu.

Ba-dauz sail onetan be, esakera ta ikasbide jaraigarriak. Ahozen-artiko erantzatuak noizpein ziri egiten dautsoe lariunbeari.

8)

(«Amore gogorraren despita»)

"Zangoitikoa mutha ezak othoi ene bihotza.
Amoriaren hark bezala nik ez dudan axola.
Borchaz ere gaizki bano hongi egitia hobe da
Ni hurik ere uziren dut hon esteriètana." — diraütso

maiteari aren "buruya" egiterik nai eze ebancean.

Maite-olerki sailau "Emazten favoretan" olerkiagaz asten dau. "Andrez gaizki eraiten" diñarduen gizonen-aurka ta emakumeak jasotearen egiña dogu.

"Emaztenik ezten lekuian eztazukat plazerik.
Ez gizona ez etxiá behin ere xahurik
Etxian den gauza oro gaizki ereglaturik.
Parabizuian nahi enuke emaztenik ezpaliz"

Urrengo "Ez honduien hollak" jatorkuz. Apartekorik ez dauka. "Amoros sekretuki" "Andre eder gentil baten" maitemin datusgu. Olerki samurá ta lizuna danik be, ezin esan daike. Gogai, adarakoak eta bizi bizíak

Gelinetan nik baneró heri neure bihotza
Ete gero balin ba lit respuesta bortitza
Dardoak bano lehen liro erdira ene bihotza.
Duda gabe ~~beten~~ ertrî naide hen berian hilhotza."

Itxurdiz ondo ornidua dogu; esakera zoriotxez egoki landua. "Amorosen partizia", "Amoros gelosia", "Pozaren galdezia" aitatzen ditudako doguz. Ba-doguz oreitan zikiri-trispistin batzuk. Bai, oraitino gogo edo arima asegatuaren zolin sail zoriotzak be.

"Ehon ere eztazuzat ni haur bezain erhorik — diraütso bere burne masteari — Nik norgatik pena baitut hark eztu axolik,
(«Amoros gelosia») Zuhur ba-niz ba-nirzande nik ere hura gaberik
Alabana ezin uzi behin ere gogotik."

Beti beregandik atera begira bizi zan gizon arola be, ez zan ba gure Etxeparo aspaldi oreitan, beste bat ezetan letz derakusguzez. Bere baiuan be, izaten euzan bere gogopen asterketak. "Amoros gelosia" oreitan maite-arduremonen batzuk eten ete-euzan esan daike. Maitearen gumutea gogotik kendu dagiola ta aren irudia be. bai begietatik, diraütso Yainkuari.

(«Amoros gelosia»)
Ni ere elicaturen niz orai hura gaberik
Erdia da lohitu ete eztut aren beatik,
Nahi be-dut utzhenen dut orai ere bairirik."

9) "Amores erefkenzia"ren" ondoren "Amorozen disputa" alkarizketaz eginikako olerki gordin-txungotsa dadarogu. Baiun bearen eta iriken arteko alkarizketa. Batak bestiari diñotsoena biai bizi dareluzgu.

"Ordu gaizaretik hriët zatizat" sapaldi bateko olertiaren ostean "Amorozen despita" maite-olerti-saileko azkena dozu, iraikorik. Alkarizketaz egiña. Liluratutako biotz libitsaren gureri bizirik eta ofeneren ondoren negargari ta saminak darekutsozan martea aurez aurre dogez.

Nagar ulteko artean be, cintzoren bat izan daiteke ta olerki oneitan zikeri eta lai artean tanta garbi batzuk ba-darioz riatuino zur-zulo-asko dauz zauzan bistarik Andreri buruz olerki-burdan,

"Beti ezin medra naite bai gal neure arima.
Bategatik sasi niro diren oroz arnega."

maite-antzetan Gaizian baina ezpa da be, ikusi dogu gure Etxeparre buru-beleri maite-ames ta egarriz jira-biraka, erdi-zorabioturik. Guztiak bere inguruan yabilkoz, guztiak daluz baina bere igesi. Zorabiotuta izan eiki! Eldulekua gure ta eldutekuak eurak be, irits eztenak ostendu dagiz. Itzeartiki-edo olerki oneitan moniberia ta itun-tramai dakusgu.

Gauzak zeranez ikusi egizan, bere burua lotutu ta begien aurrean ekusazan fusuak beste alde batetik ikustea ezotiion. Begien aurean daukaguzanean baino, euren ondokil aldetik gero obeto ezagutzen doguz gauzek. Orixe jaso yakon Etxeparre'ri be.

Bearren kerizpean sortu ebenean gauzak ezagutu. Orixe darakuzku bentzat bere espetxeko gogo-era darakuskun "Moren Bernard echaparere kantuyak"

Ona eiñen medeur ta apal doguen.

"Ybiri egin ba-derate bidegabe handia
Jeinkoari gomendazak eure gauza guzia,
Hark erori emanen dik bere merezitua
Gaiztu guztiai pena handi, pazientez gloria."

Bere baituan sortu-aginean dakusazan gretoa il egian,
Gtxzala guztarixtez damna eure buruya
Desiratuz gaistoari hel dakion gaitzia.

Jaurtiuai egiten dut injuri handia
Iturra bóriek egiten dutk jeige ezerebururá.

"Euskara jalgi adi kanpora" ta "Sautrela" dogur azkenengo ber-
tsoak. Gero zerbait óreī buruz.

Neri aburuz Loramendi edo Lizardi eredu artuta baiño Xenpelar, Zapirain, Enbeitia edo beste edozein bertsolaren neurriz Detchepare be neurtzea obeto deritzat.

Bertsolari dogu ausagu ~~...~~ aspaldiko gure Etxepare. Bertsolari treberik-treberan eta punta-punterengua ez ditu; bertsolari, arteza alan be, baiña.

Olerki edo bertso-azalari begiratu-ezkero, be-dirokezuz bertsolari jatórei iguingarri yakuezan akastxo batzuk. Aspaldiko bertsoetan "rime" egitearen bertso-buruan itz berbera jartzea adibidez. Itz-etorririk ez-edo... "bre" "ere", "gaitik", "gaitik" t.a bata-bestearen ondoren. "Doctrina Christiana" ko" bigaren zapalduan adibidez "daki", "gabenik", "gureki" ta "gabenik" dakusgua lau neurtitzezko aspaldi baten.

Oreitarikoo azildurazkoi batzuk gora-bera, bertsolariaen ezaugariak euren tenean dakuspuz.

Apuriak laga ta edaŕenik edaren ziritza-miritza yabilku. Bide lau ta zuzenenetatik yuetu. Goranz naiz beruntz ar-malak banan banan barik era dabenean era dabenez igaroten dauz. Ari estutik eldu ta guazenoi yauzi oreitk lakz egiten yakuz, bide-lauetan bare-bare ibilten oituta gagoz eta.

Beste ezeren bila ibiltzeko aora yatorkona usta olerkietan ete aurera yuaten da gure Etxepare.

Gure baserritarrako atsotitzak be, aldi ondiren irain-arien, beti geratzen yakuez artule-moltotxoak edo trokotxoak irain daben arian. Orixe beteri gertatzen yakue bertsolariei. Artule-trokotxoak piri-piri estuan eguridako lanaren ezaugarri yakuz.

Bertsolarien olerkietako goi-beiak eta triko-trakuak, be, etori-

 alan irurtako goi-ernesaren esaugari dogoz.

Ezudiz segor-txarmai yatuz Etxepare. Gogapenen arteko zer-ikusia azal-azal adierazoten dauskuz eta itzak eta esakerak alkarri josi esik egundo be, ez yabiltzu. (Batzuetan itza bertatzuetan zutez.) Adabazainez ta eun-ataleskaz egindako sorizkoa dirudie lenengo begiratuan bere olerkiak, eta (lagun mendetara) eun osotoak dira.

Lepaldi bakoitzean, izneurtu baten edo bitan isaten dau indartsu eta bizirik geien dauzkan gogapena.

(Amore gogorraren despita) Jauna guerthuz daducat porfidia handia
Hil endin nahi niguec ala ene fedia
Hic gutitan adi eçac nahi aduc eguia
Hiretako eztadacat guerthuz neure burua.

Ara zeiñen jaskera zatitua ta goi-betsua.

Azkenean laruan eukan gustia perastoda baten usten dau eta beste batzuetan azkenengo zatitxoan geiagoa au...

Bagasta bacitere bedirenduken duçu
Nik çugatik dudan pena othoy fendieçaçu
Çuretaco hernaraçu vici nahi venuçu
Ni çugatic hil bainadi cargu handia duqueçu.

"Amoros"-bertsuetan batez be, bertsolari-tasu aundia dauka Etxeparek. Bere olerkirik atoŕenak be, sail orietantxe doguz. Olerki-ituŕirik emoitsuena maitasuna izan yakon Etxepare'ri. Ituŕia bere barruan eukan. Beste askok olerki-ituŕi bila izadira edo jainkoarengana joten dalez; Etxepare'k ostera bere biotzera. Zaraaltz bere biotzak emoten eutson emoiori, bere biotz-barruko irits-artean buruten zan betzueten.

Len jaŕi dogun auzia bere olerki gustiok aztindu ostean be, ezin erabagi ete-daikegu? Marte olerkiok Etxepare berberak eginak ete doguz? Olerki-tankerari begiratu eskero bereak diranik ezin esan daike. Ulakurte-gaiezi buruz egindakurtan dakusguzen jaskera, ta aketz ta esaugariak dakusguz amorosen etan be.

Amorosen olerki gustiok betenak dira, ta erian

aoten ebilzanak diranik ~~ezin~~ uste izateko oñaririk ez dago. Sail-onetako olerki orotan somatzen dogu biotz-min eta jogo-tari berbera. Olerki guztiek dauke bata bestiarekin zer-ikusia "Amesteen secretan" asten yaku. "Estondoren coplac" yatorkuz gero Maitearekin izi-jardunak izan ondo ren, ~~maitea~~ "amorosen pestizia"; ezin partidu da ta maiteak aren "buruya" egin nai ez dabelako negerti dakusgu "Amoros gelosia" olerkian. Ezin etsi baiña ta maiteari darakutsaz olerkariak beronen esmeak "Potaren galdaria" olerkian. Geroandik andik jo dau maitearengana ta alkarekin dira ta orr or "Amorosen disputa" bien arteko liskeraldi lizuna. Azkenez baiña ~~maiteatzen~~ ere egaria itotzea, leneratu bear, amorosen ~~disputa~~ desputa"n dakusguneza.

Gauetako lorik ezak eta biotzeko guturrak (ansia) olerki guztietan darakusguz. Biotzeko bardin-txemariak gustoetan.

Bearnen atzilotuta egon zaneko beriek damoskuzan olerkiari "Moßen Bernatt echapareren cantuya" berak jari ete-eutson izenburu? ala Etxeparre il ostean argitaltzeko olerkiok artu ebasanean ez ete-eutsoen ipiñi?

Euskeltzale. "Heuscara da campora eta guacen oro dançara"

Amesiyaren eunki erdian gozuz, irakurtz
"Heuscara ialgui adi campora"

Euskera maitea etxezulo oraindiño? Oren ibiltari lurrakatuak izan euskaltzaleak eta.... euskera etxetik urteteko? Euskeldunak "egodun jaioten giñala" esan izan dau idazle artez batek.

Egodun eta ibiltari zoro jaio izan diran euske'dun asko beste txerotxio bat ikasi izan dabe egastaki juan eta atzeden egin izan daben luraldietan. Eta atzera etxera diranean emen ego-motz geratu ziranei iñungo txerotxioa irakatsi....

13

Elerti saioetan euskeraz teorotzetan lenen asi zana Etxepare izan jaku. Euskera zeiñen eder egoki ta apain dan adierazo nai izan euskun. Bere buruari buruz

« Lehen imprimaçalia heuscararen hura da" diraustu. Euskeraren ederrari begira

« Lengoagetan ohi inçan
Estimatze gutitan
Oray aldiz hic beharduc (Contrapas
Ohoria orotan » eta beste toki baten

« Lehenago hi baitiçan lengoagetan azquena
Oray aldiz içanenie orotaco lehena » (Sautrela)

Ora Etxepareren ames bakarra. Euskera jaso "berce ororen gagnera."

Emakume lirainak ez eben bakarrik liluratu, euskerak be, bai. Ta euskera askok uste eben baiño gazte-egiñago, liraiñago, politago, ta zaluago zala ta, euskotarren biotzak maitemindu egizan plazara dema

« Heuscara
Jalgi adi plaçara » (Contrapas)

Etxepare ezkero be izan doguz euskeltzaleak; euskera, euskeraren ederraren maite ta zabaldu daben asko ez.

Idazle jatorrak Axular, Mendiburu ta Kardaberaz be, baiña oneik euron idaztietan dakusgunez neurtutsa zainitu ta sendotzearen, euskaldunei euron gogo-egarria asetearen idatzi eben. Euskera indartzearen eta edertzearen be bai baiña betez pe neurtuaren.

Laramendi'k ixatiño Mariana, Mayans t.a. fuertenterieti deusesta ta euskera goratzearen ekin eutson lenen.

Aiozkera be izan doguz euskeltzaleak; euskeltzaleen buru ezta dogu Arana Goiri; maite be baiña euskera aberriaren ezagari zalako maite ta zabaldu eban.

Gitxi be, gitxi izan dira euskera berorren yoritasunaren maite izan dabenak. Bakanetarik artean bakana dogu Etxepare. Bere "Linguae Vasconum Primitiae" idaztiaren bidez plaza-

14) ra dau euskera. Eta plazan beste eder-maitagarri guztien artean ikusirik eta bere biotzaren-zotiñei entzi eziñik,

"Heuskera
Eceyn ere lengoagerie
Ez francefa ez bercerie
Oray eztа erideyten
Heuscararen parerie." (Contrapas)

Ori pozaren larria! Ori biotzaren urduria! Ori gizonaren eten-bearra!

Eta euskotar oro, begiak zabalik, auiera-jausi-enean-buruak ari begira, maitemindura bai lekusan,

"Lengoagetan ohi erican
Estimatzen gutitan
Orai aldia hic behar duc
Ohoriz orotan" – diño. (Contrapas)

Euskera ederra erdian egonerien eta euskeldunak aretuin librotuta egozala iriadienzeren, iñork Euskeraretuin dantzarik egiterik ba'zan edo gura ez ba'leu edo... "Sautrela" olertuan ejiñ dagitsoe;

"Heuscara da campora eta guacen dançera"

Dantzara urtengo edo ez urtengo dagozanak zirikatu naieean dogu. Aspaldian ez zan olako diñik entzun. Ba-zan bearik. Zer nai eban Etxepare'k?

Euskerari arlakaa bakaik eragin? Euskeldunak euskerarekin dantzan egin egien berotu?

Jolas gurea itoteari bakarik dantzatu edizan ez eban gura; ez dat atsegina-bila ibilterik be.

Euskera ta euskotarrak bat-egitea zan Etxepare'ren amesa; Euskeldunak euskera emiztetzat artzea aren burabide bakarra.

Euskeraren etorkizuna, euskeldunak euskerarekin sortuiko ebezan semeak ebezan buruan Etxepare'k.

15) "La lengua no debe ser madre, sino esposa, de la que se tienen hijos..." esan dau iñoz euskerari artu-emonetan ibili izan danaren, baste ele bat bere andragai artu ~~etzan~~ daben Unamuno eusko-garbatuak.

Etxepare'k andragai artu ta seme eder bat izan eban. Euskerak leen-semea Etxepare'gandik izan dau; ora "Linguae Vasconum Primitiae" izeneko seme nagusioi.

Ereskero aldiz-aldiz edozenbat eme izan dauz; aurreratxoan ugariago izango al-dauz; geure-eskuetan dogu semeok ugaritzea.

Ez uste izan euskera ilsotu yakunik; iñoz baiño gazte-egiñago dogu-ta.

"Garacico herria
Benedica dadila
Heuscarari emendio
Behardiyen thornuya" ("Contrapas")

Gasteiz'en 1936'gn Jorrala'ren 14'an
Pasku-irugarrena